

• MATTIN •



Bajurako euskal arrantza

• LUIS MIGUEL MACIAS •

[EUSKO JAURLARITZAKO ARRANTZA SAILBURUORDEA]

Euskal Herrian orain arte egin izan den bajurako arrantzak zentzuz jokatu du, antzinako ohiturak eten gabe, egungo merkatu liberalizatuak dauzkan eskakizunetara ondo egokituta. Erantzukizunez jokatu du, denboraren ibilian autojestioa bideratuz, eta teknologia berriak beregatatuz, arrantzari errentagarritasuna emateko moduan. Selektibitate handiko tresnak erabili izan dira, ingurumenari zor zaien errespetu osoz arituz, hala nola berdela harrapatzeko esku-aparejuak, antxoarako inguraketa-sareak, eta atunetarako karnata bizia eta kazakoa.

Baina, gure bajurako ontziek erantzukizunez jokatu badute ere, albo herrietako ontzien dinamika kontrakoa izan da, sare eta apareju erasokorragoak darabiltzatelako, kala eta merkatu berberetan lehia egiteko. Besteen tresnak ezin dira ezkondu gure ontziek erabiltzen dituztenekin, atunetarako bolantak botatzen dituztelako, eta antxoa eta atuna harrapatzeko sare pelajikoez baliatzen direlako.

Kanpoko ontziak oraintsu arte ez dira espezie horien arrantzan aritu, eta berekin batera dakarten mehatxua areagotu egin da aspaldion gertatutakoarekin, gure ontzien jokabide arduratsuen alde egin ordez, axolagabekeriak dihardutenei laguntzen zaien heinean. Europako Batzordeak, izan ere, babestu egiten ditu bolantei buruzko Europako araudia betetzen ez duten ontziak, ez dio erantzuten hegaluzea harrapatzeko murrizpenei buruz ICCAT-ek egindako gomendioari, urteetan antxoaren harrapaketa gainean daraman kudeaketa (aplikatzen duen TAC-aren bidez) ez da batera arrazoizkoa, Portugalen kuota Frantziari pasatu dio Bizkaiko Golkoan arrantzan egiteko, Europako Bata-

suneko estatuek ez dute kontrol egokirik egiten..., eta hala luza gaitzke oraindik ere.

Kasu horiek ez dira oraingoak, aspaldiko urteetakoak baizik. Une honetan, ordea, besterik gertatu da egoera irauleztara jartzeko ahaleginetan jarri garelako, eta erronkari aurre egin diogulako. Gure herriko bajurako arrantzak bizi izan duen egoerari buelta eman nahi diogu.

Hain zuzen, Europako administrazioen artean Eusko Jaurlaritza izan da bakarra, arlo horretako partaideekin elkarlanean, azken hilabeteotan senperrenak eta bi egin dituen bakarra, egoera etsai horri aurre egiteko, gure itsasontzien eskubide historikoak berreskuratu eta zaintzearen, eta arrantza-mota horien kudeaketa erantzukizunez eta zentzuz egin dadin.

1999. urtean, horretara, arrainmota horien jarraipen zientifikoa egiten segitu dugu. Eta antxoaren kasuan, funtsezkoa izan da bere kudeaketa zehazteko. Aipatzekoak dira, zinez, eraginkorra izan dela gure parte hartzea hainbat bilera zientifikotan kontseilu zientifikoa eratzeko; Europako Batzordearekin eta Kontseiluko Presidentziarekin ere topaketak izan ditugu gure arrantza-arloetako arazoak zuzenean azaltzeko; urteroko ICCAT-eko batzarrean parte hartu dugu; Kantauriko autonomia erkidego guztiaren batera hainbat ekintza sustatu ditugu, eta abar. Horrek guztiorrek helburu bikoitza izan du: atunen arrantzarako araudiak betearaztea, eta antxoarako zentzuzko TAC analitiko bat bideratzea; izan ere, herrialde batetik bestera kuota aldatzea ezabatu egin behar da, arrazoirik eta zentzurik gabea baita, arriskuan dagoen arrainmota baten gehiegizko harrapaketa legeztatzen direlako jokabide horrekin.

2000. urtea, bestalde, giltzarria izango da arrantza-mota horien eremuan hobekuntzak lortzeko. Eusko Jaurlaritzak areagotu egingo ditu bere ahaleginak Europako Batasunak jarriko dituen tresnak gure itsasontzien jokabide zentzuzkoei laguntzeko izan daitezkeen. Ukitutako arloko partaideekin elkarlanean arituz egingo da hori guztia, goian aipatutako bi helburuei erantzun egokia emateko: antxoa eta hegaluzea kudeatzeko moduei erantzuteko. Horrela, datorren urteko otsailean batzar bat izango dugu Fischler komisarioarekin, gai horiek eztabaidatzeko; baita Kontseiluan eta Batzordean Portugalek izango duen presidentzia berriarekin ere. Funtsezkoa izango da, halaber, gure ekarpena datorren ekainean antxoaren TAC aztertu behar denean, eta ICCAT-en gomendiorako, zeren eta espezie horien gaineko kontseilu zientifikoa AZTI euskal institutuak garatutako azterlan zientifikoetan oinarritzen baita funtsean.

Aurrean daukagun aldia funtsezkoa izango da, bada, arrantza-mota horietan gure itsasontziek izan duten eta daukaten pisua berreskuratzeko. Euskal Herriak dauzka arrantzalerik onenak, eta Eusko Jaurlaritzak sendo egingo du lan bai ohikoak ditugun espezieen egungo egoera hobetzeko, eta bai itsasontzi berriak egiteko. Berrikuntza horretan beste eskualde batzuk baino txartoago egon ondoren (laguntza hobeak izan dituzte-eta), 2000. urtetik aurrera egoera ez da berdina izango, ez baitute gurek halako bidegabekeriarik jasango gehiago, indartsu jardungo du-eta Eusko Jaurlaritzak gure arloa biziberritu dadin. Horixe da, hain zuzen, Jaurlaritzaren erronkarik nagusia aurrean daukagun etorkizunari begira.

••• **JUANTXO URDIROZ**

Lur-neurtzaileak



Ginekologoak eta lur-neurtzaileak dakitentxoa kontatzen hasten direlarik, idazleak eta soziologoak mutu gertuko dira, gizakia eta mundua ongi ezagutzeko, orbanak eta mugarriak aztertzea bezain bide aproposagorik ez baita. Poeta batek errana. Amodioa arimaren afera

izanen bide da, baina idatzi, gorputzean idazten da. Lurrean ere idazten da herrien bizialdia. Hona hemen pare bat istoriotxo nork bere ondorioak ateratu ditzan.

Herrikka batean, bi alor bereizteko, mugarri bat jarri behar zen. Halako egun batean eta halako toki batean, alde banatuko jabeak bildu ziren bitartekariarekin. Mugarria non jarri behar zen esan teknikoak. Denak konforme. Zuloa egiten hasi, eta batek ezetz, haratago emateko aitzurkada. Orduan, beste aldekoak ezetz, hasierako tokian aitzurrean egiteko. Hamar zentrimetroko aldea izanik ere, nork bereari gogor eutsi. Azkenean bitartekaria erabat gogaitu, pikutara bidali bi nagusi jaunak eta paratu zuen mugarria. Handik puxka batera, mugarria mugitua. Berriro jarri bitartekariak zegokion tokian. Baina berriro mugitu zen mugarria. Azkenean herriko batek esan zion bitartekariari, inongo ironia-zipitzi gabe: «ez dakizu, *gizona, munduan badirela mugarri dantzariak?*».

Galitzian, lehen, itsaso ondoko alorren eskriturak egiteko, ez zen idazten alorrek itsasoarekin muga egiten zutela, baizik eta Ingalaterrarekin, itsasoa idortuz gero, Ingalaterrainoko lurra norenak ziren jakin zedin.

Ohartu bezala, ez da batera erreza lan hori. Intelektualek ere ez dute deus laguntzen. Kosmopolitismoa dela, abertzaletasuna gaitzestea dela, aitzurra hartzen duen horrek ez du inongo seguritatekerik. Erreka bat, mendi-portu bat egonik, irudi du errezagoa dela, baina mendiek bereizi beharrean, alde banatuko jendea elkartzen omen dute. Eta bistakoa da itsasok koloniak izateko gogoareagotzen dutela.

Eta lur-don jua horiek, zilegi bekik horrela mintzatzea, epaile jauna, Hego Amerika menperatzearekin oraindik ere amets egiten dutenak.

...**kornerra**

MIKEL ELORZA

Atzoko irudiak

■ Negoziazio prozesuei buruzko erreportaiak didaktikoa iruditu zitzaizkidan atzo une batez albistegiak, *ikasi nahi duenarentzat* adibide. Korsikako talde armatuak su-etena eskaintzen Jospin ordezkari politikoekin bildu eta biltzen segitzeko eskaintza egin ondoren. Belfastko irudiek beste pauso bat erakusten ziguten, 100 eta gehiago preso Gabonak etxean igarotzeko Mazeko kartzelatik irteerentzen. 300 badira baldintzapeko askatasuna lortutako preso irlandarrak.

Une bat besterik ez zen izan. Josetxo Arizkurenen irudirik ez zegoen (eta izatekotan hauskorra irudikatzen da, hauskorregia), bera eta bere kideen sende eta lagunena baizik. Oraindik ere Olentzero burdina-artearen eraman behar duten gabon-kantarienak dira hemengo irudiak. Guardia zibilek atzemandako furgonetarenak. Entzutegi Nazionalakoak. Ikasi nahi ez dutenen ereduak.